265. zk.
Bigarren aroa
Azaroak 15
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Kirolak
Erroibide Saskibaloi Elkarteak 10 urte bete ditu.

9. orrialdea

Erreportajea
Korrokoitz 9, eztabaida iturri.

6. orrialdea

Ikuskizuna da Behobia-Donostiako irteera

3 Elkarrizketa Jose Luis Noain margolaria.
4 Elkarrizketa Pablo Moratinos, Interneteko aholkularia.
5 Berria FICAB Bidasoako Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa.
7 Berria Aurrekontu parte hartzaileak.
10 Gurasoentzat Gatazkak nola bideratu? Bigarren atala.
11 Haurren Leihoa El Pilar Ikastetxea.
12 Gazteen Lanak San Vicente de Paul DBH2.
14 Gazte infor
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

Argazki lehiaketa

Josu Sagarzazu
Irungo Zabaltza plazako Pio Barojaren estatua.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

Serapio Mujika Kalea

IUA: 42893

1998. urtean kalea berritu zuten, gaur egungo itxura emanez.

Serapio Mujika kaleari 1960ko urriaren 26ko osoko bilkuran jarri zioten izena. Alkatetzak egin zuen proposamena. Juan Arana kalearekiko perpendikularra da, eta Pio XII plazatik igaro ondoren, Elizatxo hiribidean amaitzen da.

Serapio Mujika Zufiria, historialari eta artxibozain gipuzkoarra izan zen. Ormaiztegin jaio zen 1854ko azaroaren 14an, eta Donostian hil zen, 1941eko martxoaren 16an.

Zaragozan Zuzenbidea ikasi eta notario titulua lortu zuen. Baina ez zuen sekula notario lanik egin. Bizitza osoa Gipuzkoako udal artxibo ugari ordenatzeko lan arretatsuan eta ikerketa historikoan eman zuen. Hari zor diote irundarrek Udal Artxibategia sistematikoki ordenatu izana. XIX. mendearen amaieran eta XX. hasieran burutu zuen.

Gizon metodikoa, langilea eta ordenatua zen Mujika. Historiako Akademian bere lana saritu zuten. Laurencin markesak laudorioak eskaini zizkion, jarraitu beharreko eredutzat jo baitzuen.

Balio historiografiko handiko obra ugari argitaratu zuen. Espainiako Historiaren Errege Akademian akademiko, Frantziako Akademiako ofizial, Gipuzkoako Kronikari, Gipuzkoako Udal Artxibategietako Ikuskatzaile eta Probintziako Seme Agurgarri izendatu zuten.

Mujikaren oroimenez aipamen sutsuak agertu ziren “El Bidasoa” aldizkarian, garai desberdinetan. Gainera, haren figura eta lana goraipatu zuten Bidasoaldeko idazle ospetsuek, adibidez, Fausto Arozenak, Emilio Navasek, Luis de Uranzuk eta J.M.M. inizialak zituen beste batek.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLITICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

“Margolari saiatua, langilea eta bokazioz betea naiz”

JOSE LUIS NOAIN

José Luis Noainen obrak ikus daitezke otsailaren 14ra arte, Mentxu Gal aretoan eta Oiasso Erromatar Museoan. Pasioz beteriko margolaria da Noain, gertukoa. Patxadan hitz egiten du, baina informazio asko eta xehetasun ugari eskaintzen ditu. Labur geratzen da orrialde bakarreko elkarrizketa.

Pozik erakusketarekin?

Oso pozik. Prestaketa guztiaren ondoren, lasaiago nabil orain. Lanarekin asebeteta nago, baina onartu behar dut akatsak ikusten dizkiodala. Hala ere, kontent nago erakusketa bikoitzarekin. José Antonio Santano alkateari eskerrak eman nahi nizkioke, berarekin hitz egiteko hitzordua eskatu nuenean, abegitsu hartu ninduelako. Edozein hiritarrek alkatearekin hitz egiteko aukera, egokia iruditu zait. Belen Sierra Kultura ordezkari ohiari ere eman nahi nizkioke eskerrak, baita Jokin Ormazabal teknikariari ere, erakusketa antolatzeko laguntza handia eman digulako. Nire seme Santiagok ere parte hartu du erakusketaren prestaketan.

Zergatik Menchu Galen eta Oiasson?

Lan asko genituen, eta ez ziren areto bakarrean sartzen. Oiasso Museoa gustuko dut, baina Menchu Gal aretoa oso berezia da niretzat. Eraikin horretako azken solairuan hasi nintzen ni pinturan, Gaspar Montes Iturriozekin. Udako oporretan, ikasle gutxi hartzen zituen, eta nik zenbait udara pasa nituen berarekin. Erakusketari dagokionez, zortea izan dut, bi aretoak utzi dizkidatelako.

Hitz egin zure buruaren inguruan.

Ez da erraza norberari buruz hitz egitea. Irungo 60.000 biztanleen artean, gehienek dituzte bizitza interesgarriak. Ni Madrilen jaio nintzen 1944an, eta hiru urte nituela etorri nintzen Irunera. San Martzialen egin nuen Lehen Hezkuntza, eta unibertsitatearen aurrekoa Loiolan, Donostian. Gero Arte Ederretako ikasketak egin nituen Madrilgo San Fernandon, eta han ezagutu nuen Carmen Maura, Mentxu niretzat. Ezkondu egin ginen. “Hondarribira ezkondu ginen”, azaldu zidaten moduan. Esamoldearen esanahia da ezkondu ginela, eta Hondarribian bizitzen hasi ginela. Gure hiru seme-alabak jaio ziren han. Hondarribiko Institutuan lan egiten hasi nintzen. 2000 urtera arte egon nintzen han, eta gero Lisboako Espainiako Institutura joan nintzen. 2007ko San Martzial egunean, erretiroa hartu nuen. Irunera etorri nintzen bizitzera, eta orduz geroztik, proiektuak aurrera eramaten saiatu naiz.

Zure pinturak ere bilakaera izango zuen, ezta?

Egin dudan guztiak nire garaiaren, nire hasieraren zigilua darama. Nire influentzia nagusia Antonio López García izan dan, nazioartean ezaguna den margolari hiperrealista. Arte Ederretako lehen mailan nintzela ezagutu nuen. Klasera etorri zen, eta identifikazio handia sentitu nuen bere postulatu estetikoekiko. Momentu hartan, iraultzailea zen. Orduan abstrakzioa zen nagusi, Eduardo Chillidarekin, Antonio Tapiesekin, Saurarekin edo Senpererekin... Pintore errealista bat indarrez sartzea berritzailea zen, ia eskandaluzkoa. Erreferentzia estetikoa izan zen niretzat, eta harreman afektibo estua izan nuen gainera López Garcíarekin. Ideia batekin hasi zen, eta identifikazioa lortu zuen. Egia esan, gustatuko litzaidake berriro agurtzea, ikasketak amaitu nituenetik ez bainaiz berriro berarekin egon.

Errealitatea interpretatzeko modua sortu zuen, eta nik modu apalagoan jarraitu diot bide horri, nire begirada emanez, eta nire munduan aplikatuz: Irunen, Hondarribian eta nire lantokietan.

Nola definituko zenuke zure burua?

Sintesi horiek gehiegi dira niretzat. Oso zaila da esatea. Margolari saiatua naiz, langilea, bokazioz betea eta sortzeko gaitasun eta talentu ertaina dituena. Esperimentazio eta berrikuntza ahalmen arrunta dut. Baina lanean dudan irmotasuna eta nire gogoa eta ilusioa, horiek bai, goi mailakoak dira. Beraz, pinturako langilea naizela esan daiteke.

Artista handiak eman ditu Bidasoak.

Asko aipa ditzaket: Darío Regoyos, José Salís, Vicente Berrueta (udaletxean duen koadro batean oinarrituta, Urdanibia plazako estatua egin dute), Vazquez Díaz, Francisco Maura, Julio Etxeandia eskultorea, eta Gaspar Montes Iturrioz. Garai horretakoak dira Bernardino Bienabe Artia, eta León Barrenetxea eskultorea. Gaspar Montesen bidea jarraituta, Mentxu Gal, Enrique Albizu, José Gracenea, Carlos Arrecubieta eta Jesús Montes datoz. Ondoren Ana Izura, Felipe Iguiñiz eta ni neu. Atzetik ere badago harrobia.

Bidasoak artista asko harrapatu izan ditu, eta esango nuke Madril-Irun eta Hendaia-Paris trenei esker izan dela. Antonio Machado poetak adibidez, bere ezkontzaren eguneko gaua Hondarribian pasa zuen, hurrengo egunean Paris aldera irteteko. Regoyosen eta Vazquez Díazen presentzia ere azalduko luke horrek, adibidez.

Zure erakusketara bueltatuta, zein da bi aretoen antolaketa?

Mentxu Galen sorkuntza libreko obrak daude. Oiasson, nire hasierako lagin batzuk kenduta, dagoen guztia geometriaren eta marrazkiaren lengoaiaren ildotik doa, teorikoagoa da. Marrazkian eta grabatuan erabiltzen ditudan baliabideak ikus daitezke. Teknikan interesa duen jendeari gustatuko zaizkio.

Erakusketetako zein nahiago duzu?

Menchu Galen nire mugak, nire ezintasunak gelditzen dira agerian. Arazo larriei aurre egin nahi izan diet koadro horietako batzuetan, eta noski, emaitzek ez naute erabat asebetetzen. Oiasso Museoko lanei dagokienez, lotsarik gabe esan dezaket ondo eginak direla.

Zure bide artistikoari jarraitu al dio familiak?

Luis Noain osaba, gerraren erruz gutxietsitako margolaria izan zen. Nire alaba antropologoa da, seme zaharrena arkitektoa eta gazteena musikaria. Pintorerik ez dago, baina arte plastikoekiko lotura dute, edozelan ere.

“Gure beharrak aurreikusten dituen internet izango dugu etorkizunean”

Iruneroko laguntzaile izan da Pablo Moratinos 2012az geroztik. Sare sozialei edo interneten erabilerari buruz hitz egin du, eta enpresentzako aholkuak eman ditu. Gai guzti horiei buruz idazten du bere blog-ean ere, baina enpresei zuzenduta, eta eduki teknikoagoekin. Iruneron kolaboratzen jarraituko du Pablo Moratinosek, baina noizbehinkako artikuluekin.

Zein izan da zure ibilbidea?

Urte asko eman nituen Txingudi Telebistan lanean. Han hasi nintzen Irunerorako lehen kolaborazioak egiten. 2012an online komunikazioko nire enpresa martxan jarri nuen, eta Ana Grijalbaren gonbidapena jaso nuen, Iruneron parte hartzeko. 3ymedia enpresan online komunikazioko aholkularitza egiten dut, eta lan horrekin uztartu izan dut Iruneroko kolaborazioa. Enpresa txiki eta ertainentzat, autonomoentzat eta langabeentzat formazioak ere eskaintzen ditut, haien produktuak saldu ditzaten, edo irudi digital ona eratu dezaten.

K-Bidasoan ere parte hartu dut. Irungo eta Hondarribiko aholkulariak gara, eta taldeko lanak egiteko elkartu gara. Artisau aholkulariak garela esaten dugu. Ezagutza librea elkarbanatzen dugu, eta pertsonekin egiten dugu lan, enpresekin edo markekin baino gehiago. Bidasoa Bizirik garapen agentziarekin eta Urolako Ugga-sarekin lan egin izan dugu.

Interneten eboluzioa ikusi duzu. Zer iruditu zaizu?

Internetekin lehen kontaktua 1997an izan nuen. Hasieran ikusle hutsak ginen, orain eduki igorleak gara. Erabiltzaileak gara gure artean elkar eragina dugunak, eta edukiak sortzen ditugu gainera. Interneten sozializazioa izan da hori. Gaur egun, enpresen tresna berdinak ditu edonork eskura. Enpresa handi batenaren antzeko web orria egin dezake edonork, oso merke, ia doan. Aldaketa bortitza izan da hori. Gaur egun arraroa da bilatzailean norbaiten izena idaztea eta emaitzarik ez jasotzea.

Orain konturatzen hasi gara arrasto digital horrek asko esaten duela gure buruaren inguruan. Arrasto hori baloratzen eta etekina ateratzen hasi gara. Marka pertsonala da, eta enplegua lortzen lagundu dezake, adibidez. Bestalde, gaur egun produktu bati buruz jendeak zer pentsatzen duen jakin dezakegu, erosi aurretik. Iraultza horren jabe egin gara, eta kudeatzen ikasten hasi gara.

Telefono mugikorrak, tabletak eta bestelako gailuak ere baditugu.

24 ordu ematen ditugu sarean. Nahi edo ez, interneten arrastoa uzten ari gara beti. Telefonoa, erlojua, telebistak... Komunikatzen ari gara une oro. Edozein botoi klikatuta arrastoa uzten dugu, eta hori kudeatu beharra dago.

Nora goaz?

Dena konektatzen duen internet daukagu orain. Etorkizunean, gure beharrak aurreikusten dituen internet izango dugu. Badira jada bide horretan doazen aplikazioak. Normalean bazkaldu ohi dugun orduan, balorazio onak edo prezio merkeak dituzten jatetxeak proposatzen ditu aplikazio batek, adibidez. Telefonoari ezer galdetu gabe, ekimena hartzen du berak. Gure beharrei aurrea hartzen dien zerbait izango da internet. Ez dakit zein neurritan izango den abantaila.

Beldur pixka bat ematen du...

Gaur egun, erraza da egingo duguna iragartzea. 1984 liburuan edo filmean esaten zutena errealitatea da. Ez gara neurriz kanpo kontrolatutako eta militarizatutako gizartea, baina egia da jokaera eredu batzuei jarraitzen diegula beti. Big Data kontzeptua dabil orain bolo-bolo. Gure portaera aurreikusten duten online zerbitzuak dira, eta aurreikuspen horien araberako aukerak edo soluzioak proposatzen dituzte. Esate baterako, Facebook-ek ez digu aukeratu dugun edukia bakarrik erakusten, bere aurreikuspenen arabera gure interesekoa izan daitekeena ere eskaintzen digu. Gure askatasuna galtzen dugu, neurri batean. Egia da gehiegizko informazioari aurre egiteko modua dela hori. Irakurri nahi dugun edo behar dugun informazioa filtratzen du. Ez dut esaten abantaila denik, errealitatea da. Abantaila edo desabantaila izan daiteke.

Hamabost urte bete ditu FICAB Bidasoako Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoak

Arkeologiari eta ondare historikoari buruzko hogeita sei film emango dituzte

2001ean sortu zen FICAB Bidasoako Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa. Orduan ez zen lehiaketa, eta lau egunez eskaintzen zituen filmak. Aurten hamabosgarren edizioa bete du FICABek, eta agerikoa da izan duen hazkundea. Zazpi eguneko festibala izango da, lau sail izango ditu, eta lehena Donostian egin dute, San Telmo Museoan, azaroaren 14an eta 15ean.

"Zinema jaialdi bitxia da FICAB. Ausarta. Arkeologoen lana dibulgatzeko helburuarekin sortu zuten Oiasso Erromatar Museoak eta Irungo Udalak. Inguruan, behintzat, ez du pareko proposamenik. "Jorratzen dituen gaiei eta formatuari dagokionez, festibal bakarra da", berretsi du Juncal Eizaguirre Irungo Udaleko Kultura ordezkariak. Horregatik, beharbada, lortu du egonkortzea eta pixkanaka haztea. Zazpi eguneko zinemaldia izango da aurtengoa. 85 film jaso dituzte antolatzaileek lehiaketarako, eta 26 emango dituzte festibalean. Jatorri eta hizkuntza ezberdinetakoak izango dira. Aurten, lehen aldiz, korearrez eskainiko dute film bat, eta arabiarrez beste bat. Emankizun guztiek azpitituluak izango dituzte, gaztelaniazkoak gehienak.

Donostiak hartu du Off FICAB saila, azaroaren 14an eta 15ean. Ondarearekin lotura gehien duten filmak aukeratu dituzte San Telmon emateko. Tartean euskarazko azpitituluak dituzten bi film bakarrak. Susana Soto San Telmo Museoko zuzendariak begi onez ikusi du FICABen parte hartzea: "Museook ondarearen inguruan lan egiten dugu. Erakusketak egiten ditugu, bisita didaktikoak etab. Baina zinemaren bidez, museoen atzean dagoen lana modu ludikoan erakutsi daiteke". Mertxe Urteaga Oiasso Museoko zuzendariak gogoratu du San Telmorekin lortutako harremanari esker eskaini ahal izan dutela zazpi eguneko zinemaldia. "Lankidetza ezinbestekoa da guretzat", baieztatu du Urteagak.



Eguneko hiru sesio

Azaroaren 16an helduko da FICAB Irunera. 19:00etan egingo dute inaugurazio ekitaldia Amaia Kultur Zentroan, eta Sail Ofizialeko film bat eskainiko dute ondoren. Azaroaren 17tik 21era, eguneko hiru sesio egongo dira. Denak doakoak. Goizetan, Hezkuntza Saileko filmak emango dituzte, Amaia Kultur Zentroan. Ikastetxeetako haurrentzat egokiak izan daitezkeen filmak izango dira, baina beste edonori ere irekiak. 11:00etan emango dituzte. Bazkal ondoren, Arratsaldeko Saila hartuko du Carlos Blanco Aguinaga kultur guneak, 17:00etan. "Film dinamikoak izango dira, arin samarrak", argitu du Mertxe Urteagak. Abentura eta emozioa ere izango dituzte ezaugarri. Iluntzean, 19:00etatik aurrera, Sail Ofizialeko filmak emango dituzte, Amaia Kultur Zentroko auditorioan.

Sail guztietako filmek parte hartuko dute lehiaketan. Epaimahaiko kideek onena hautatuko dute, eta Jaialdiko Sari Nagusia eta 2.000 euro emango dizkiote. Ondorengo adituak izango dira epaimahaiko kide: Marc Azéma Historiaurrean doktorea eta paleolitoko artean aditua, Paloma García Gijongo Arkeologia Museoko zuzendaria, José Luis Rebordinos Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko zuzendaria eta Luis Sanz ikus-entzunezko eduki hezigarrien eta dokumentalen ekoizlea Valladolideko Unibertsitatean. Juan Santos Yanguas Euskal Herriko Unibertsitateko Antzinako Historiako katedraduna izango da epaimahaiko presidente. Publikoaren Sari berezia ikusleek hautatuko dute, eta 1.000 euro jasoko ditu haiek aukeratutako filmak. Amaiera ekitaldia eta sari banaketa azaroaren 21ean izango dira, 19:00etan Oiasso Erromatar Museoan.

"Zinemaren bidez, museoen atzean dagoen lana modu ludikoan erakutsi daiteke"

Susana Soto, San Telmo Museoko zuzendaria

"Gaiei eta formatuari dagokionez, festibal bakarra da"

Juncal Eizaguirre, Irungo Udaleko Kultura ordezkaria

"Lankidetza ezinbestekoa da guretzat"

Mertxe Urteaga, Oiasso Museoko zuzendaria

Korrokoitz 9, eztabaida iturri

Etxebizitza utzi eta eraikinaren eraistea ordaindu beharko dute bizilagunek

Iturgintza lanetan ari zirela, eraikinaren egurrezko egitura desestali zuten. Horrekin batera, bizilagunak, erakundeak eta enpresa pribatuak nahasten dituen gatazka azaleratu zuten. Etxean termitak zituztela jabetu ziren momentu horretan. Baina hariari tiraka, eztabaidaren gainerako osagaiak gelditu dira agerian. Korrokoitz kaleko 9.eko bizilagunen kasuak alerta piztu du eremu osoan.

Eraikina ikuskatu duen arkitektura enpresaren txostenean oinarrituta, erortzeko arriskuan dagoela deklaratu du Irungo Udalak. Bizilagunek abenduaren 9an etxetik kanpo egon behar dute, beranduenez. Bitartean, eraikina zurkaiztu eta astero gainbegiratu dute arkitektoek. Dena den, hori ez da bizilagunen arazo bakarra. Eraikinaren eraistea haiek ordaindu behar dutela ere jakinarazi die Udalak. Lehen kalkuluen arabera, 20.000 euroko kostua izan dezake. Bi familia bizi dira Korrokoitz 9ko eraikinean. Lehen solairuan, 73 eta 76 urteko senar-emazteak. Bigarrenean, jabearen alaba bizi da, bere seme-alabekin. Etxabean, Alzate ileapaindegia zegoen. Negozioa uztera behartu dute jabea, eta momentuz, langabezian gelditu da, 52 urterekin. "Izorratuta gaude", adierazi du Remedios González lehen solairuko emakumeak.

> "Zaila da irtenbide aproposa aurkitzea, familiek jasan duten kaltearen larritasuna kontuan hartuta"
> **Sergio Corchón, Gizarte Ongizatea arloko ordezkaria**

Irailean jakin zuten etxean termitak zituztela. Iturgintza lan batzuen ondorioz konturatu ziren, eta arkitektura enpresa baten zerbitzua kontratatu zuten, egurrezko egituraren egoera ikuskatzeko. Arriskuaz jabetuta, bilera eskatu zuten Xabier Iridoy Irungo Udaleko Hirigintza ordezkariarekin. "Etxea ikustera joan ginen. Udaleko teknikariek eraikina erortzeko arriskuan zegoela berretsi zuten, eta hiru hilabeteko epea eman genien etxea uzteko", azaldu du Iridoyk. Jakinarazpen ofiziala jaso ondoren, José Antonio Santano alkatearekin biltzeko eskaera egin zuten bizilagunek. "Jaso genuen gutuna oso hotza zen. Gure ardurak besterik ez zituen aipatzen. Horregatik joan ginen alkatearekin hitz egitera, gizatasun pixka baten bila", argitu du Asier Martinek. Bigarren solairuko e-txebizitzaren jabearen semea da, eta bertan bizi den emakumearen anaia.

> "Momentu honetan ez dago udalak ardura duela esaten duen txostenik"
> **Xabier Iridoy, Hirigintza arloko ordezkaria**

Alkateak Gizarte Ongizatea arlora bideratu zituen, beste etxebizitza bat lortzeko irtenbideen bila. Adineko senar-emazteei, Eusko Jaurlaritzaren Alokabide programaren bitartez alokairu sozialeko etxebizitza bat eskuratzea proposatu diete. Lortzen ez badute, diru-laguntza bat emango diete hilero, etxebizitza baten alokairua ordaintzen laguntzeko. Bigarren solairuko emakumeak Babes Ofizialeko Etxebizitza bat eslaitua du Oinaurre eremuan. Bere etxebizitza eraikitzen duten bitartean, alokairu baterako laguntza emango diote. Lourdes Alzate ile-apaintzaileari, berriz, K-Biziak programan parte hartzea proposatu diote. Irungo Alde Zaharra biziberritzeko asmoz, lokalak alokatzeko diru-laguntzak ematen dituzte K-Biziak-en bidez. "Zaila da irtenbide aproposa aurkitzea, familiek jasan duten kaltearen larritasuna kontuan hartuta", aitortu du Sergio Corchón Gizarte Ongizatea arloko ordezkariak.

Beste proposamen bat ere egin zieten bizilagunei: udalak etxearen eraistea ordaintzea, eta gero orubea erostea, prezioari eraistearen kostua deskontatuta. Asier Martinek azaldu du orubearen balioari buruzko aholkularitza eskatu dutela, eta argi gelditu zaiela udalaren proposamena ez zaiela komeni: "Hiru familiaren artean banatu beharko genuke diferentzia, eta trukean, oruberik eta eskubiderik gabe gelditu ginateke. Karga bat kenduko luke Udalak gainetik". Desadostasunen aurrean, alegazioa aurkeztu dute bizilagunek, eta prest daude epaitegietara jotzeko.

> "Udalak baztertuta izan du eremua aspaldidanik"
> **Asier Martin, kaltetua**

Arduraren eztabaida

Bizilagunen argudioa da egoeraren ardura guztia ez dela haiena. "Badakigu udala ez dela termiten arduradun. Baina eremuaren egoera orokorrarena bai, bada. Baztertuta izan du eremua aspaldidanik. Ez da sekula lehentasuntzat hartu", argudiatu du Martinek. Udalak berriz, erantzukizunik ez duela baieztatu du. Xabier Iridoy Hirigintza arloko ordezkariak eman du azalpena: "Momentu honetan ez dago Udalak ardura duela esaten duen txostenik. Hori frogatzen baldin bada, hartu beharreko neurriak hartuko ditugu. Baina momentuz, ardura hori frogatzen duen dokumenturik ez dago". Etxea behar bezala zaintzeko gai izan ez direla leporatu dietela adierazi du Asier Martinek. "Hori ez da bidezkoa", salatu du.

1999 urtean, hiri-antolamendutik kanpo utzi zuen Udalak Korrokoitz. Eremua berriro urbanizatzeko asmoa zuen. Orduz geroztik, sententziatuta egon da eraikina. Hala ere, konponketa eta atontze lanak egin dituzte, etxean eroso bizi ahal izateko. "Inbertsioak egin ditugu, baina tamaina batekoak, jakinda gertuko egun batean etxea botako zutela", nabarmendu du Martinek. 2008an, PAU urbanizaziorako ekintza plana onartu zuen Irungo Udalak, eta Korrokoitz eremua sartu zuen proiektuan. Itxaropen izpia izan zela gogoratu du Asier Martinek: "Planoak ikusi genituen, eta kaltetuen artean geundela konfirmatu ziguten. Horrek, eremuan beste etxebizitza bat izateko eskubidea ematen zigun".

Alabaina, proiektua geldirik dago orduz geroztik. "Eremua oso konplikatua da, enpresa pribatuen esku dagoelako", azaldu du Xabier Iridoyk. 2000 urtetik aurrera, zenbait inbertsorek lursailak erosi zituzten eremuan. Guztiekin negoziatu behar izan du Udalak, eta ezinezkoa izan da akordioa. Neurri handi batean, eremuaren atzean dagoen kanalaren obra nork ordainduko duen adostu ez dutelako. Beste arazoetako bat bizilagunak beraiek direla uste du Martinek: "Gu ere karga bat gara, beste etxebizitza bat eman behar digutelako". Etxea eraisten dutenean ordea, eskubide hori galduko dute Korrokoitz 9ko bizilagunek. "Proiektua aurrera eraman arte etxea zutik mantendu ez izana leporatu digute. Baina hamabost urte eman ditugu zain", azpimarratu du Asier Martinek.

Edozelan ere, Korrokoitz eta Papinea eremuen egoera kezkagarria da. XX. mendearen hasierako eraikin zaharkituez gainera, baratzeak, sastrakak eta hondakinak daude, Irungo erdigunetik oso-oso gertu. Agerikoa da birmoldaketa behar duela eremuak. "Nire aldetik, ahalegin guztiak egingo ditut proiektua mugiarazteko", zin egin du Xabier Iridoy Hirigintza arloko ordezkariak. Momentuz, argi dagoena da abenduaren 9an Korrokoitz kaleko eraikina utzi beharko dutela bizilagunek. Eta ez daudela konforme udalak proposatutako aterabideekin. Helegite kontentzioso-administratiboa jartzea izan daiteke hurrengo urratsa. Asier Martinek ez daki noraino helduko diren: "Uste dut bidea aspektu ekonomikoak markatuko duela. Luzea eta garestia baita administrazioaren aurkako prozesu batean sartzea". Ziurgabetasunean bizi dira Korrokitz 9n.

Txingudi Ikastolako kirol gunea estaltzeko proiektua izan da bozkatuena aurrekontu parte hartzaileetan

Gazte taldeei diru-laguntzak emateko proposamena onetsi dute gazteen atalean bozkatu duten irundarrek

Amaitu da aurrekontu parte hartzaileetako azken bozketa. Bileretan eta web gunean proposatutako proiektuak bozkatu dituzte irundarrek, azaroaren 6tik 13ra. Aurrekontu parte hartzaileen atal orokorrean, Txingudi Ikastolako kirol gunea estaltzeko proposamenak irabazi du bozketa, 1.925 botorekin. 250.000 euroko kostua izan dezakeela aurreikusi dute. Bigarrena Artiako futbol zelaiko harmailak estaltzeko proiektua izan da (1.809 boto eta 400.000 euroko kostua), eta hirugarrena, Behobiako "Goardia Kidegoa" eraikina eraberritzekoa (1715 boto eta 490.000 euroko kostua). 25.476 boto jaso dituzte guztira bozketa orokorrean.

Gazteen atalean, haurrentzat eta gazteentzat ekintzak antolatzen dituzten gazte taldeei diru laguntzak emateko proposamena izan da bozkatuena. 128 boto jaso ditu, eta 20.000 euro bideratuko dituztela aurreikusi dute. Tokiko enpresei diru-laguntzak ematea eskatu dute hurrengo proposamenean, enpresa horiek Irungo gazteak kontrata ditzaten (97 boto eta 30.000 euroko kostua). Hirugarren tokian gelditu da sanmartzialetan Gazte Gunea sortzeko proiektua (88 boto, 30.000 euroko kostua). Parte hartzea askoz apalagoa izan da gazteen artean. 879 boto jaso dituzte guztira.

Bigarren esperientzia

Bigarren aldiz antolatu du Irungo Udalak aurrekontu parte hartzaileen prozesua. 65 milioi euroko aurrekontu osotik, 1,5 milioi bideratu ditu prozesura, horietatik 200.000 euro, gazteei zuzendutako atal espezifikora. 2014an bezala, Innova Genio enpresak kudeatu du prozesua. Ekimenaren eskema orokorra mantendu dute, baina zenbait aldaketa egin dituzte. Nabarmenena, aurrez-aurreko bileren kopurua bostetik hirura murriztea. Hiru fase izan ditu prozesuak.

Lehen fasean proposamenak egin dituzte hiritarrek, web gunearen bidez edo udalak antolatutako bileretan. Urriaren 7an Leka Enea eskolan egin dute, urriaren 14an Luis Marianoko gizarte zentroan, eta urriaren 21ean Urdanibia plazako Ospitale Zaharrean. Hiritarrek bilera guztietan parte hartu ahal izan dute, baina behin bakarrik eman diete bozkatzeko aukera. Ateratako proposamenak aztertu ondoren, udalak batzuk baztertu ditu, baldintzak betetzen ez zituztelako.

Onartutako proposamenen artean, aurre-bozketa egin dute hiritarrek, urriaren 26tik 29ra. Guztira 48 proposamen pasa dira azken bozketara, 12 bilera bakoitzetik, eta beste 12 web gunetik. Azken faseari hasiera eman aurretik, bilera informatzailea antolatu dute, azaroaren 5ean, Carlos Blanco Aguinaga kultur gunean. Azken bozketa azaroaren 6tik 13ra egin dute. 16 urtetik gorako irundarrek eman ahal izan dute botoa, www.irun.org/presupuestosparticipativos web gunean, Irun Txartelaren edo NANaren bidez.

Gazteen aurrekontu parte hartzaileei dagokienez, internet bidezko prozesua izan da, hasieratik bukaerara. Urriaren 7tik 12ra proposamenak jaso dituzte, eta azken bozketa azaroaren 6tik 13ra egin dute. 16 eta 30 urte arteko gazteek parte hartu ahal izan dute. 200.000 euro jarri ditu Udalak gazteen erabakiaren esku.

Ikuskizuna da Behobia-Donostiako irteera

Festa erraldoiaren itxura hartzen du Irungo auzoak lasterketaren aurretik

Bisitariak biderkatzen ditu Irungo Behobia auzoak azaroko bigarren igandean. Festa edo jaialdi erraldoi bat izango balitz bezala, jendez eta kolorez betetzen dira kaleak, espaloiak, errepideak, tabernak eta baita gasolindegia ere. Giroa ere halakoxea da. Bafle handiek musika auzo osoan zehar hedatzen dute, eta esatarien iruzkinek festa sentsazioa areagotzen dute. Behobia-Donostiaren irteerak ez du beste edozein lasterketarenaren antza handirik.

Inguruko auzoetatik entzuten da Behobitik datorren zalaparta. Kalera irten bezain pronto, nabari da lasterketa eguna dela. Behobia aldera doan jende gehien-gehienak kiroletako arropa darama. Batzuk oinez doaz, motxila eta guzti. Beste batzuk korrika motelean, berotzeko asmoz. Hartu beharreko bideari buruz galdetzen dutenek euren burua salatzen dute. Ez dira eskualdekoak. Autobusean, trenean edo topoan iritsiko ziren, beste milaka lagun bezala. Nahiko Arbide gaztea Urnietakoa da, eta trenean etortzen da urtero. Giro atsegina izaten dela azaldu du: "Batekin edo bestearekin hitz egiten, ziztu bizian pasatzen zait bidaia. Kataluniarrak topatzen ditut, edo estatuko beste leku askotakoak. Interesgarria izaten da haien esperientziak entzutea".

> "Zaila izaten da lagunak topatzea, hainbeste jenderen artean"
> **Nahiko Arbide**

Bosgarren aldiz ariko da Nahiko Arbide Behobia-Donostian. Hala ere, aurten helbururik gabe irtengo da, lagun talde batekin gozatzera. "Elkarri animatuko diogu, eta pixkanaka egingo dugu ibilbidea. Gogorra da, baina ez gatoz sufritzera", azpimarratu du urnietarrak. Behobian gelditu da lagunekin, baina badaki ez dituela aise aurkituko: "Zaila izaten da lagunak topatzea, hainbeste jenderen artean". Leku eta ordu zehatza finkatu beharra dago, bestela, eromena da Behobian norbait bilatzea. Milaka eta milaka lagun biltzen dira auzoan. Beroketan edo mentalizazioan kontzentratuta egoten dira batzuk, lehen multzoetan irtengo direnak, batez ere. Luzaketa ariketetan edo edari isotonikoei azken tragoak ematen ikus daitezke horiek.

> "Lasterketa enblematikoa eta gogorra da. Erronka da guretzat"
> **Jennifer Pérez**

Gainerakoen artean, irudi bitxiak ikusten dira. Tabernak barra-barra egoten dira, esaterako. Eguraldi onarekin, terrazetan egoten da jende asko, kafea lasai ederrean hartzen. Dendariek ere goizari etekina ateratzen diote, ur botilatxoak edo fruta saltzen. Hidratazioa behar-beharrezkoa da, baina ur gehiegi edatea ere ez da komeni, ondorioak ekar ditzakeelako. Antolakuntzak prestatutako komunen aurrean dauden ilarak ikustea besterik ez dago. Bero handia egiten du, eta eguzkiak gogor jotzen du. Horregatik, edozein aterpek balio du itzala bilatzeko. Elizaren atarian jendea dago, eskaileretan eserita. Gasolindegian ere bai, erregai hornigailuen artean. Berriketan daude gehienak, edo musikaren erritmoan dantzan.

Jatorrien eta helburuen aniztasuna

Koloreen festa ere bada Behobia-Donostiako irteera gunea. Hala ere, bat edo bi nagusi izaten dira urtero. Lasterketako kamisetarenak, hain zuzen ere. Aurten fuksia da, eta mauka grisak ditu. Jende askok darama soinean. Beste kolore batzuk urtero errepikatzen dira Behobian, Kataluniako gorria eta horia, adibidez. 4.000 kataluniar inguru aritzen dira azken urteotan Behobia-Donostian. Taldeka iristen dira gehienak, lagunen gomendioa jarraituta. "Ni irteteko irrikaz nago, kontatu didaten guztia ikusteko", adierazi du Manel Expósitok. Terrassakoa da, eta lagunekin etorri da. Rosa Garcíak animatu du, joan den urtean parte hartu baitzuen. Esperientzia "ederra" izan zela azaldu du: "Jende asko zegoen animatzen, hasieratik bukaerara. Gainera, euskaldunek oso ondo hartzen gaituzte beti. Errepikatzea erabaki genuen, eta bueltatu gara, baina jende gehiagorekin. 30 lagun gara guztira".

Asturiastik etorri dira Jennifer Pérez eta Aida Somoza. Lehen aldiz parte hartuko dute Behobia-Donostian. "Lasterketa enblematikoa eta gogorra da. Erronka da guretzat", aitortu du Pérezek. Amaitzea dute helburu, eta lasterketaz gozatzea. Ordularia alde batera utziko dute. Urduritzen hasi dira, irteteko ordua hurbiltzen ari delako. Sentsazio arrunta dela uste du, dena den, Jennifer Perezek: "Lasterketako emozioaren parte da urduritasuna". Momentuz, irteerako giroa disfrutatzen ari dira. Harrituta daude antolatzaileek prestatutako muntaiarekin. "Pena da musika ibilbide osoan zehar ez dagoela. Mundiala litzateke hori", aipatu du Aida Somozak. Ondoan, elastiko deigarriak dituzten gizonemakumeen multzo bat dago. Nafarroako Diabetes Elkarteko kideak dira. "Gure osasunerako kirolak duen garrantzia irudikatu nahi dugu", argitu du Humberto Perez de Leivak.

Pixkanaka hustuz joan da Behobia. Elbarriak irten dira lehenengo, eta patinatzaileak ondoren. 10:00etan hasi dira lasterka korrikalari azkarrenak, Donostiara bidean. Hortik aurrera, multzoka irteten joan dira parte hartzaileak, dortsalaren kolorearen arabera. Urduritasunak gora egin du irteerako arkura hurbilduz joan diren heinean. Atzera kontaketa amaitu den unean, emozioek eztanda egin dute. Hortik aurrera, 20km-ko ibilbide gogorrari heldu behar izan diote parte hartzaileek. Haizea eta beroa izan dituzte kontra, baina ikusleen babesa alde. Atzean gelditu da Behobiako irteera gunea. Bertan, langileen eta boluntarioen lana hasi da, auzoak normaltasuna berreskura dezan.

Hildako bat izan da Behobia-Donostian

Korrikalari bat hil da aurten Behobia-Donostian. Laugarrena da lasterketaren historian. Bihotzekoak eman zion muga pasa ondoren, eta zerbitzu medikoak bizkor iritsi ziren arren, ezin izan zuten gaztearen heriotza ekidin. Jose Javier Suescun zen, 31 urteko berbintzandarra (Nafarroa). Lasterketa gogorra izan zen, haizearen, beroaren eta hezetasunaren ondorioz. Guztira 446 korrikalari artatu behar izan zituzten zerbitzu medikuek, eta 20 bat izan ziren hurrengo egunak ospitalean eman zituztenak. 440 korrikalarik bertan behera utzi zuten lasterketa. Beste askok parte hartzeari uko egin zioten. 34.000 dortsal banatu zituzten, baina 28.262 kirolari irten ziren Behobiatik.

Enrique López:
“Ez gaude ezer ospatzeko moduan”

Hamar urte bete ditu aurten Erroibide saskibaloi elkarteak. Junior mailako talde batekin hasi zen, 2005ean. Enrique López izan da presidente hamarkada osoan. Baina heldu zaio kargua uzteko momentua. Bere azken denboraldia izango da. Gipuzkoako Saskibaloi Federazioan presidenteorde izateari ere utziko dio. Hamargarren urteurrenari dagokionez, López ez du uste ospakizunetarako arrazoi handirik dagoenik. Kluba ez dago momenturik onenean. “Sabaia jo dugu. Ezin dugu gehiago hazi, ez dugulako azpiegiturarik”, azaldu du López ez. Harro dago, hala ere, Erroibiden egindako lanarekin.

2005/10/08 Erroibideren lehen partidu ofiziala. Paco Rico (entrenatzailea), Alejandro López, Bearn Lartigue, Andoni Aguirre, Aitor Errazquin, Joseba Arozena, Andrés Viedma, Carlos Rosell, Aritz Hernández eta Mikel Santano.

La Salleko mutil batzuen eta haien gurasoen ekimenez sortu zen Erroibide. Azalduko al duzu?

Kadete maila amaituta, mutilek ez zuten lehiatzen jarraitzeko aukerarik, Irunen ez zegoelako saskibaloi elkarterik. 2004/2005 denboraldian zehar lagunartekoak lortu genizkien. Gero herriko jaietako 3x3 txapelketetan parte hartu zuten. Hurrengo denboraldirako, izena eman genuen Eusko Jaurlaritzan, Gipuzkoako Foru Aldundian, eta Gipuzkoako Saskibaloi Federazioan. Junior mailako talde batekin hasi ginen lehiatzen. Taldeak gehituz joan ginen hurrengo urteetan. Agerian gelditu zen Irungo gazte askok saskibaloian jokatu nahi zutela.

Hamar urte bete ditu Erroibidek. Ez al duzue ospakizunik antolatuko?

Ez gaude ezer ospatzeko moduan. Badirudi gure kluba ez dela existitzen. Ate guztiak jo ditugu: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Irungo Udala, Gipuzkoako Saskibaloi Federazioa. Baina ez dugu laguntzarik jaso, gure kabuz egin behar izan dugu aurrera.

Hala ere, bilakaera handia izan du Erroibidek.

Hala da. Zortzi talde ere izan ditugu, eta 80 neska-mutil inguru eskolan. Orain 64 ditugu. Kopurua mugatu behar izan dugu, ez daukagulako non sartu. Kirol instalazioekin arazo handia dago Irunen. Beste herrietan, haurrak askoz lehenago hasten dira lehiatzen. Irunen ezinezkoa da, ez dagoelako lekurik. Ez entrenatzeko, ezta lehiatzeko ere.

Azken Portun eta Artalekun ari zarete. Ez al da nahikoa?

Azken Portu eraiki zutenean, ez zuen saskibaloi kantxa estalirik. Gerora egin zuten, alkatea harrituta gelditu zelako gure taldeen aurkezpen batean. Egia da bere hitza bete zuela. Hala ere, kantxa txiki gelditu zaigu orain. Artalekun senior mailako taldeek entrenatzen dute, baina hamar urtean ezin izan dute inoiz kantxa osoan entrenatu. Bidasoako taldeek ere han entrenatzen dute, eta kantxa herenetan zatituta ibiltzen dira, Eskola Kiroleko haurrak bezala.

Nola eutsi diozue elkartearen hazkundearen eta bideragarritasun ekonomikoaren arteko orekari?

Ingeniaritza ekonomikoa eginez. Argi dugu saskibaloi elkarte xumea, txikia eta mugatua garela. Daukaguna gastatzen dugu, euro bakar bat gehiago ere ez. Urte batean ezin badugu arroparik erosi, aurrekoa berrerabiltzen dugu. Jokalariak gurasoekin joaten dira partidetara, junior eta senior mailan izan ezik. Dena den, ondo pentsatuta, erakundeen laguntzarik ez izatea positiboa izan da, alde batetik. Horrek libreago izan gaitezen ahalbidetu du. Ez diogu inori ezer zor. Ni adibidez, lasai asko joan naiteke, eta ez diot inori azalpenik eman behar.

Aldatuko al zenukete askatasun hori kirol maila handiago baten truke?

Ez. Guk beti pentsatu izan dugu ezin dugula garaipenekin itsutu. Gure elkartearentzat irreala da kirol arrakastarekin amestea. Kontrakoa pentsatzeak obsesioa dakar. Beti iruditu izan zait onartezina dela erakundeen, babesleen eta ikusleen dirua fitxaketetan gastatzea, eta haurrak eta gaztetxoak abandonatzea. Gipuzkoa Basket elkarteak, esaterako, ez du talde bakar bat ere azpian. Niretzat askoz aberasgarriagoa da Erroibideko kadete mailako neskak ikustea. Ilusio ikaragarriarekin ari dira, ezin izan dutelako lehenago lehiatu.

Aspaldi ari zarete emakumezkoen saskibaloia sustatzen.

Ez da berdintasunagatik hartutako erabakia izan. Naturala izan da. Elkartean emakumeak ditugu jokatzen, entrenatzen eta zuzendaritzan. Federazioan ere parte hartzen dute klubeko emakumeek, mahaiko laguntzaile edo epaile lanak egiten. Orain Euskal Herriko Unibertsitatearekin hitzartuta gaude. Donosti Basket Neskak proiektua sortu dute, beste zenbait elkarterekin, emakumezkoen saskibaloia indartzeko. Hitzarmenari esker, Irungo neskek irtenbidea dute, guk ezin baitiegu maila batetik gora lehiatzeko aukera bermatu.

Gustura utziko al duzu elkartea?

Bai. Honaino iritsi gara, eta oso harro gaude egin dugun lanarekin. Irundar askori saskibaloian jokatzeko aukera eman diogu. Gainera pertsonak hazi ditugu, ez jokalariak bakarrik. Haurren jarrera zaindu dugu, eta entzuteko eta arreta mantentzeko gaitasuna ere bai. Guzti horrek jokalari onak egiten ditu, teknikaz harago. Ni gustura ibili naiz, ikusiko dugu zer datorren orain.

Zer esango zenioke zure ondorengoari?

Ez nuke nahi kontatu ditudan zorigaitz guztiekin izutzerik. Erroibiden lan asko egin behar da, baina ez da zaila. Guk egin baldin badugu, edonork egin dezake. Hori bai, dedikazioa eta borondatea behar dira.

GATAZKAK NOLA BIDERATU? (BIGARREN ATALA)

KALTETU EDO MINDU ZAITUT, BARKATU!

Pertsonen arteko gatazketan, gehienetan norbaitek besteak gustuko ez duen zerbait egin duela gertatzen da.

Pertsonon ezaugarria da gauzak beti ongi ez egitea. Esaerak dioen bezalaxe, gizakiok beti egiten dugu estropezu harri berdinarekin. Eta zer egin horrelakoetan? Geure burua zigortu? Gure burua estutu? Gehienetan, gure burua zigortzeko joera dugu, baina ganoraz aztertzen badugu, badago gaizki egindakoa konpontzeko bide natural bat.

Tamalez, duela urte batzuetako hezkuntza erruan oinarrituta zegoen, eta zerbait gaizki egiten genuenean, jotzen gintuzten edo ezertarako balio ez genuela sentiarazten ziguten. Zenbait ikastetxetan ohiko gertaera izaten zen zuzenkiarekin eskuetan jotzea eta batek baino gehiagok etsipen handiz jasan izan du irakaslearen zaplazteko indartsua. Etxe askotan ere zigor bide gogorrak erabili izan dira haurren jarrera desegokiak bideratzeko. Zorionez, gertaera horiek iraganekoak dira, eta gaur egun gure ikastetxeetan edo etxeetan ez da horrelakorik gertatzen. Hala ere, gogoetarako galdera bat proposatu nahi nuke.

Gure ikastetxeetan eta etxeetan jotzearen bidea alde batera utzi dugun arren, ba al dugu estrategiarik haurrek edo gazteek zerbait gaizki egiten dutenean, hori horrela egin behar ez dela irakasteko? Haurrek edo gazteek JOKAERA DESEGOKIAK dituztenean, jotzen ez baditugu ere, OHARTU GABE ez al diegu erruduntasuna-sentiarazten? Zenbait gurasoren edo irakasleren jokaera desegokien aurrean, ez al dugu errudun sentiarazten, gaizki egindakoari konponbiderik eman gabe?

Haur edo gazte batek jokaera oso desegokia duenean, helduoi burura datorkigun lehen gauza da zer egin ote dugun gaizki (zer egin dugun horrelako haur bat izateko). Gure buruari kulpa leporatzen diogu, eta sentitzen dugun erru sentimenduaren isla haurrari luzatzen diogu. Min eta haserre horretan egin duen kaltearen neurriko zigorra bilatzen dugu. Egindakoa oso larria bada zigorrak ere halakoa izan behar du.

Gogoeta sakona egin behar dugu: batetik nondik gatozen pentsatu, eta bestetik oraindik gure gurasoen hezkuntza zorrotzaren ondorioak pairatu ditzakegula jakin behar dugu. Ohartu gabe, askotan gurekin egin dutena (edo gure gurasoekin egin zutena) egiten jarraitzen dugu. Eta zer egin? Erruduntasun pasiboan geratu? Ez!!!!! Kulpa adimenez bideratzen ikasi behar dugu. Zeren guk, gizakiok, badugu tresna natural bat zer dagoen ongi edo zer dagoen gaizki ikasteko.

UTZ NAZAZUE EGINDAKO KALTEA ONARTZEN ETA KULPA SENTIMENDU HAU BIDERATZEN IKASTEN!!! GAIZKI EGINDAKOA KONPONTZEN IKASI BEHAR DUT BERRIRO GAIZKI EZ EGITEKO!!!

Gizaki emozionalak garenez, baditugu zenbait emozio sozio-moral, gaizki egindakoa konpontzen eta harreman positiboak bideratzen laguntzen digutenak. Emozio hauek kulpa, lotsa, harrotasuna eta enpatia dira. Ikus ditzagun banan banan.

Denok egiten ditugu gauzak gaizki eta hala ikustean ERRUDUN izatearen sentimendua bizitzen dugu. Soilik sentimendu hau sentitzean gaude benetan gaizki egindakoa konpontzeko bidean. Euskaraz argi adierazten den bezala damutu egiten gara, orduan bakarrik balio du, adibidez, barkamena eskatzeak.

Gizakiak ENPATIA izateko joerarekin jaiotzen gara, berez denok dugu besteen sufrimendua ikusteko gaitasuna, baina garatzen ez badugu, galtzeko bidean egon gaitezke. Gaizki egindako zerbaitegatik haur bat epaitzen dugun momentuan (kulparazten dugunean) bestearen lekuan ipintzeko bidea mozten diogu. Gaiztoa dela sentiarazten diogu.

Zein da bidea? Zergatik ez diogu haurrari pentsarazten? “Zer gertatu da? Gustatuko litzaizuke zuri egitea besteei egindakoa? Nola konpondu dezakezu?”

Errudun izatearen sentimenduak ezin du barnean geratu. Egindako kaltea atera behar da, egindako kaltea konpontzen saiatu behar gara. Nola? Lehenik barkamena eskatuz, eta gero denbora eskatzen digun konponbidea bilatuz: iturria irekita utzi bada, ura biltzen lagunduz, zerbait puskatu denean, hura ordezkatzen, norbait mindu denean marrazki edo eskulan elaboratu bat eskainiz… Hau da:

EGINDAKO KALTEAREN ONDORIO LOGIKOA BIDERATZEN. Zer egin dut gaizki? Horren ondorioa biziko dut, nire kulpa bideratuta egongo da eta ni jakintsuagoa izango naiz, arduratsuagoa eta autonomoagoa. Bide horretan gugandik ikasiko dugu, emozioak erregulatuz eta zuzena zer den ikasiz, helduaren zigorren arabera jokatu gabe.

HARROTASUNA emozio atsegina da. Ongi egindakoa baloratzen badigute (laguntzean, bestearen lekuan ipintzean, konpartitzean, esfortzua baloratzean…) egindakoa berriro egitearen bidean gaude. Balore hauek baloratu eta momentu horietan harrotasuna bideratzen badugu, berriro errepikatuko dira, eta haurraren edo gaztearen autoestimua handituko da.

Hezkuntza emozionalak zoriontasunaren bidera garamatza. Guraso eta hezitzaileok ere maiz gauzak gaizki egiten ditugu, eta helduontzat bidea ere berdina da: kulpa emozioa sentitzen utzi, damutu eta egindako kaltea konpontzen saiatu. Horrela eredu bikaina izango gara gure haur eta gazteentzat, eta bide batez, mirestuko gaituzte beraiek badakitelako hain zuzen ere zeinen zaila den beti dena ongi egitea. Ez da erraza, badakit, baina bide positiboak zoriontasunaren bidera garama- Zoriontsu bizi!!!

KUTTUN AHOLKULARITZA
PSIKOPEDAGOGIKOA
MAPI URRESTI ORTIZ

El Pilar Ikastetxea LH2 Nora Rodriguez

Arna dut hizmotela
aita afeslari
zuria dut azala
eta libotza hori
(olpano)

NORA RODRIGUEZ
LH 2- EL PILAR IKASTETXEA



Bi lehi lehi laten atzean
bi lehi lehi laten aurrean
lehi bat bi lehinen erdian
guztira, zenbat lehi diva?
(Bakarra)

Bi lagun ditut
ilunaeta isiltasuna
haurrik txikienak ere
ni baino rahiago egunа
(amoh)

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf. 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

San Vicente de Paul DBH2 Chrisna Ribeiro

EUSKARAZ, iRUNEN BARRENA

Irungo Kateako S.R.A. andereak kantatuak. Duela 80 urte kantatzen ziren Irunen bertso berri hauek. (El Bidasoa 1959-II-7)

Gizon mozkorraren bertsuak

Bein batian atera zen gizon bat tabernatik moxkorra.
Erori zen. Bere lagunak begira. Etorri zen andria, eta:

Gizon ezin jasorik
andria ari da
farrez urratzen dago
jendia begira.
Dolorez altxa eta
erraz erori da
zikintzeko bildur gabe
loyaren erdira.

Batzuetan arrastaka
eta bestietan erori
nolazpait etxeratu da
gizon ederrori.
Allegatu danian
andre aguxari
txapela kendutzeko
tabernariyari.

Gizona, guazemizu
pakian oyera
eguna zablatzian
konponduko gera.
Txapela prenda utzita
etorri bazera
kreditu ederren bat
biar degu zartzera.

Zuk zenion arduak
etzuela indarrik
eztet bara ikusi nai
orrela senarrik.
Prenda orregatikan
ez egin negarrik
buru gabiak eztu
txapela bearrik.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Beldur Barik ikus-entzunezkoen lehiaketa martxan jarri du Irungo Udalak

Indarkeria matxista salatu beharko dute parte hartzaileek sormen lanetan

Bigarren aldiz antolatu du Irungo Udalak Beldur Barik ikus-entzunezkoen sorkuntza lehiaketa. Maila autonomikoan sortu zen ekimena, baina herriz-herri ere egiten dute orain. Nerabeei zuzendutako lehiaketa da: 12 eta 17 urte arteko gaztetxoek parte hartu ahal izango dute. Irunen erroldatutako gazteak izan beharko dira, edo Irunen eskolaratuak, behintzat. Helburu bikoitza du Beldur Barik-ek. Nagusia, berdintasunaren aldeko jarrerak sustatzea, eta emakumeen kontrako indarkeria salatzea. Bide batez, gaztetxoen sorkuntzari bultzada emateko tresna ere bada lehiaketa.

Ikus-entzunezko formatuan egindako edozein lan artistiko aurkeztu ahal izango dute parte hartzaileek: Ideia batzuk eman dituzte: flashmob-ak, kamerari esandako testuak, bideoklipak, argazkiak, animazioa, lipdub-ak, dantzak, film laburrak... Denak onartuko dituzte. Iraupenaren aldetik, berriz, muga jarri dute: bost minutuko lanak izango dira gehienez. Bideoen kalitate teknikoa edo artistikoa baloratuko ditu epaimahaiak, baina batez ere, mezuan jarriko du arreta. Kontuan hartzeko gakoak eman ditu Aitziber Iratzoki Irun Beldur Barik lehiaketako koordinatzaileak: "Mezuaren kalitatea, eta hausnarketa eta eztabaida sortzeko duen gaitasuna kontuan hartuko ditu epaimahaiak: emakumeen ahalduntzea, eta gizonen ardura indarkeria matxistarekin bukatzeko".

Lanak aurkezteko epea azaroaren 20an amaituko da. Proiektu guztiak Youtube edo Vimeo plataformetara igo beharko dituzte parte hartzaileek. Gero, beldurbarik@irun.org helbide elektronikora bidaliko dituzte estekak. Maila autonomikoko lehiaketan parte hartzeko aukera ere badago. Horretarako, jarrera@beldurbarik.org helbidera ere bidali beharko dituzte estekak. Proiektuak bakarka, taldeka edo zentro baten izenean aurkeztu daitezke. Pizgarri modura, saria behar izaten dute nerabeek lehiaketetan parte hartzeko. Irungo Udalak 300 euroko erosketa txartela emango dio lanik onenari. "Saritik harago, garrantzitsuena da parte hartzea, azken batean denok irabazten baitugu", adierazi du, hala ere, Josune Gomez Irungo Udaleko Euskara eta Gazteria ordezkariak.

Gazteak ahalduntzearen garrantzia

Irungo gazteak ekimenaren parte senti daitezen nahi lukeela baieztatu du Josune Gomezek: "Tamalez, berri txarrak entzuten ditugu gaur egun. Horregatik, ahal dugun neurrian, indarkeria desagerrarazteko ahalegina egin behar dugu". Gizarte Ongizatea da lehiaketa antolatu duen beste departamentua. Sergio Corchón ordezkariak xehetasun gehiago eman ditu Beldur Barik-en helburuaren inguruan: "Gazteen ahalduntzea landu behar dugu, indarkeria matxista salatzeko aurrera pausoa eman dezaten". Egoera eta ideia asko landu daitezke bideotan. Corchónek bat azpimarratu du, lehiaketaren izenburuak biltzen duena: "Ez da beldurrik eduki behar".

Irungo Udalak kontuan hartu du 12-17 urte arteko gazte gehienek ez dutela ikus-entzunezkoei buruzko ezagutza handirik. Horregatik, sorkuntza-tailerra antolatu du, azaroaren 3an eta 4an Martindozenea Gaztelekuan. "Artisten eta adituen laguntza jaso dute tailerretan", azaldu du Josune Gomezek. Ikus-entzunezkoei eta sorkuntzaren urrats guztiei buruzko aholkularitza jaso dute parte hartu duten gazteek. Baliagarri izango zaizkie ezagutzak Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko.

> "Mezuaren kalitatea, eta hausnarketa eta eztabaida sortzeko gaitasuna kontuan hartuko ditu epaimahaiak"
> **Aitziber Iratzoki, koordinatzailea**

> Gazteen ahalduntzea landu behar dugu"
> **Sergio Corchón, Gizarte Ongizatea arloko ordezkaria**

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO · bacalaos SANTYMAR · la barajilla bacalaos · Egullor Bacalaos

Dejaldiak

UZTEN AL DUGU INDARKERIA ATE AZPITIK PASATZEN?

Zer? Ikastaro honen bidez, hausnarketa bat egin eta esperimentatuko da, geure buruarekin eta beste pertsonekin harremanetan egoteko dugun moduari buruz. Ikusiko eta probatuko dugu zein jarrera dauzkagun afektibitate harreman iraunkorretan eta egunez egun topatzen ditugun indarkeria mota guztietan.

Noiz? Azaroak 20 eta 27.

Ordutegia? 10:00 - 13:00

Non? CBA Kultur Gunea (San Juan Harria plaza)

Prezioa? 7euro.

Izena emateko: azaroaren 2tik 17ra

Informazio gehiago? 010 telefonora edo www.irun.org

Ikastaroak

IKASTAROAK: DRONE PILOTUA, DISEINA EZAZU ETA EGIN EZAZU ZURE ARROPA

Zer? Mendibil Prestakuntzarako Zentroak zenbait ikastaro antolatu ditu. Drone pilotuarena, adibidez, Bidasoa Eskualdeko lehenengo ikastaroa da. Egiaztagiri Ofiziala ezagutzeko, eta aireontziei eta rotor anitzeko drone ofizialen pilotatze sistemei buruz ikasteko aukera emango du. Prestakuntza teorikoa eta praktikoa egongo dira.

Informazio gehiago eta izena emateko?
943 610 610 telefonora deituz edo e-posta bat helbide honetara bidaliz:
comunicacion@apmendibil.com

2016KO INAUTERIAK. OINARRIAK: KARTEL LEHIAKETA ETA KONPARTSAK

Zer? Irungo Udalak 2016ko IRUNGO INAUTERIETAKO kartela aukeratzeko lehiaketarako deialdia egin du.

Saria? 500 euro

Aurkezteko epea? 2016ko urtarrilaren 12ra bitarte, 14:00ak arte. Ospitale Zaharran, Urdanibia 6 (Kultur eta Kirol Arloan)

Izen ematea: urriaren 17ra arte
www.donostia.eus/juventud/

Konpartsen parte hartzea (epea: urtarrilak 8) 2016ko desfilean parte hartu nahi duten Irungo konpartsek San Martzial kaleko 2.ean kokatutako HAZ bulegoetan (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua) egin dezakete izen ematea datorren urtarrilaren 8ra arte.

Informazio gehiago:
www.irun.org.

MAITASUN GUTUNEN LEHIAKETA

Zer? Leioako Maitasun Gutunen XVII. Lehiaketa.
Parte hartzaile bakoitzak nahi beste gutun aurkeztu ahal izango du, euskaraz zein gaztelaniaz.

Informazio gehiago?
www.irun.org

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Euskadiko Gazteak Lankidetzan 2016

KAMISETEN LOGO LEHIAKETA
Bidaliguzu zure logoa eta trukean aparteko bidaia bat irabazi dezakezu. Logoak bi edo hiru kolore izan behar ditu eta programarekin bat datozen helburualk bildu behar ditu.

Epea? abenduak 13.

18 - 30 urte arteko gaztea bazara, parte hartu!

KARTEL LEHIAKETA
2016ko Euskadiko Gazteak lankidetzan programako kartelak zuk egindako irudia izan dezake, eta trukean aparteko bidaia irabaz dezakezu.

Epea? abenduak 13

Programari buruz ideiaren bat baldin badaukazu, parte hartu!!!

Informazio gehiago: http://www.gazteaukera.euskadi.eus

Azaroaren 20tik abenduaren 13ra

Zer? AFIk antolatutako “Irun Hiria” argazki lehiaketaren erakusketa. Lehiaketara aurkeztu ziren 78 obretatik, 32 erakusten dira.

Non? Amaia KZ Hitzaldi aretoan.

Prezioa? Doako sarrera.

Azaroaren 9tik 22ra

Zer? Emakume talde batek "Naturanblai" erakusketa kolektiboa aurkezten du. Parte hartzen duten artistak Arantza Aguirre, Nerea Urdangarin, Eva Irazoki, Maritxu Insausti eta Itziar Jimenez dira.

Non?Laboral Kutxan. Kolon 13.

Prezioa? Doako Sarrera.

Azaroak 23

Zer? Mahai-ingurua, genero-indarkerian adituak diren pertsonekin: Beatriz Rodriguez (epaile ohia eta abokatua), Xabier Coca (Ertzaintzako komisarioordea), Lorena Pidal (Itxaropenaren Telefonoko psikologoa) eta espetxeetako psikologo bat.

Non? Uxoa elkartea Gipuzkoa hirib., 12

Ordua? 17:30etan

Azaroaren 24tik abenduaren 6ra

Zer? Froilan Celadaren erakusketa.

Non? Laboral Kutxan. Kolon 13

Ordua? Astelehenetik larunbatera: 18:00-21:00; Igandeetan eta jai egunetan: 11:30-13:30

Prezioa? Doako Sarrera.

Azaroaren 27tik 29ra

Zer? Basque Street Food Festival. Ficobara iristen da hain modako dagoen street food edo kaleko janaria: Iraganeko karabanen koloreek apainduko dute erakustazoka, haien gastronomi eskaintza zabalarekin. Mota guztietako jendearentzat prestatutako ekitaldia.

Non? Ficobako 3. pabiloian.

Ordua? 11:00etatik 20:00etara.

Non? Ficoban

Prezioa? Doako sarrera

Informazio gehiago: www.the-foodtrucksclub.com

Azaroak 29

Zer? Luis Mariano Lirica Elkarteak antolatutako “La vida es tango” kontzertua.

Non? Amaia K.Zn.

Ordua? Zehaztu gabe.

Prezioa? 10 euro bazkideak / 15 euro bazkide ez direnak.

Informazio gehiago: www.lirica-luismariano.org/contacto/

"2001. CORRALITO; 2015, ¿?" HITZALDIA

Azaroak 22

Zer? Fakun Aznarezek, kazetari argentinarrak, Argentinako egoeraz hitz egingo du.

Non? Kabigorri Ateneoa Sargía, 1 - atzealdea.

Ordua? 19:00etan.

Prezioa? Doako Sarrera.

Antolatzaileak? Iungo Askapenak eta Kabigorrik batera antolatua.

Telefonoa? 943635333 eta 630313642

Informazio gehiago? http://www.kabigorri.org/index.php/eu/ekitaldiak/ekitaldiak-2015/453-hitzaldia-2001-corralito-2015

UDAZKEN GASTRONOMIKOA

Muga Jatetxean

Iñaki Barros

Azaroak 20

Koldo eta Iñigo Kortabitarte

KOBIKA Jatetxea Durango

4 ESKUKO AFARIAK

45 €

Menua

Aperitifa

Ahate-carpaccioa kimuekin eta udazkeneko barazkitxoekin

Sarria Chardonnay

Hasierakoak

Arrautza ikaztua

Bieira, mutur eta gari-esparragozko ragouta

Palacio de Bornos kupelan hartzituta

Arraina

Bakailaua eta kalabaza

Guelbenzu Azul

Okela

Lumagorri biribilkia eta onddoak

Guelbenzu Evo

Postrea

Intxaursaltsa gazta freskozko izozkiarekin eta irasagarrarekin

Sarria Moscatel

M. J, Labandibar, 36. BEHOBIA

943 620071

21:00etan

HOTEL ETH IRUN

RESTAURANTE Muga JATETXEA

Baseclick

PALACIO DE BORNOS D.O. RUEDA

SEÑORIO DE SARRIA D.O. NAVARRA

GUELBENZU V.T. RIBERA DEL DUERO